



MIRAMAR JAUREGIKO BISITA GIDATUAK URTE-AMAIERA ARTE LUZATUKO DIRA

- *Hiritarrek eta bisitariek, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez 30 minutuko bisita gidatuak egiten jarraitu ahal izango dituzte jauregi barruan Basquetourri esker.*
- *Miramar Jauregiko irekierak izugarritzko arrakasta izan du, uztaila bukaeratik 1.712 pertsona baino gehiagok hartu dute parte programatuta zeuden bisitetan.*
- *Bisita gidatuek deskontzentrazio-estrategia sendotu dute, eskaintza gune turistiko nagusitik kanpo zabaldu delako eta hori da, hain zuzen ere, Donostia VISIT-BIZI 2017-2021 Turismoko Gida Planeko ardatzetako bat.*

Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoak, Donostia Turismoa & Convention Bureauren bidez, martxan jarritako ekimenaren arrakastari esker **Basquetourrekin** akordio bat egin da eta Miramar Jauregiko bisitak urte-amaiera arte luzatzea lortu da.

Basquetourreko zuzendariak, Harkaitz Millánek, adierazi du “proposamen interesgarria dela, Jauregiaren erabilera ezezagun bat sustatzen duelako. Gainera, honi esker, hiritarrek eta bisitariek eraikinaren historiaren berri izateko aukera dute eta aldi berean hiria garai historiko horretan ezagutzen dute.”

Bere aldetik, Ernesto Gascok, Donostiako lehen alkateorde eta Turismo zinegotziak Eusko Jaurlaritzaren babeska eskertu du “orain, urte-bukaerara arte pertsona gehiagok gozatu ahal izango dute bisita gidatuekin. Jauregian, orain arte, itxiak zeuden lekuetan sartzeko aukera, hiriaren beste erakargarri bat bilakatu da eta akordio honekin programa finkatzea espero dugu.”

Lola Horcajo eta José Fernández Beobide historialari donostiarrek prestatu dituzten kanpoko informazio-panelak ere bertan mantenduko dira.

Bisita gidatuak **urriaren 14tik abenduaren 30era** arte egingo dira; asteburuetan, urriko zubian eta Gabonetan. Gidariak eskaintzen dituzten bitxikerien eta kontakizunaren bidez, garai hartako jauregiaren historia eta bizitza berregingo dute eta gune bakoitzean jatorrizko altzariak jarrita ez dauden arren, Donostia Turismoa & Convention Bureau-ren **helburua jauregiko jatorrizko altzariak berreskuratzen saiatzeko lanean jarraitzea** da.



Bisita gidatuak lau hizkuntzetan egiten jarraituko dira (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez). Iraupena 30 minutukoa izango da eta taldeak, gehienez, 20 heldu + 5 hurrekoak izango dira. 3 €-ko balioa izango dute. Txartelak **Donostia Turismoa & CBren hiru informazioguneetan** (Boulevard, autobus-geltokia eta Cervantes plaza) edo **www.sansebastianturismo.com webgunean** eskuratu ahal izango dira oraingoan ere (Shop / Jarduera Onenak).

Ekintza hori helburu nagusien artean turismoa **deskontzentratzea** duen Donostia VISIT-BIZI 2017-2021 Turismoko **Gida Planeko estrategiaren baitan** kokatu behar da. Miramar jauregia baliabide turistikoa gisa bultzatuta, eskaintza turismo-gune nagusitik kanpo zabaldu eta turismo-fluxuaren mugimendua Antigua/Ondarreta eremura bideratuko dugu. Horrek, halaber, intereseko gertuko beste toki batzuk ezagutzeko aukera emango dio bisitariari (Haizearen Orrazia, Ondarreta hondartza, Antigua auzoko saltokiak eta ostalaritza eta abar).

ARRAKASTA HANDIA MIRAMAR JAUREGIAREN IREKIERA TURISTIKOAREKIN

Uztailaren 22an Miramar Jauregiko lehen bisita gidatuak jarri ziren martxan eta **ordutik 1.712 pertsonak erosi dute** sarrera hiriko toki historiko hau ezagutzeko asmoz. Bisita gidatuak lau hizkuntzetan egin dira (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa) eta Miramar Jauregiko jardinetan jarri diren panel didaktiko batzuekin osatu dira. Panel hauetan eraikinaren eta hiriaren historiaren berri ematen zaie bisitariari eta bere irakurketa oso entretenigarri egiten duten pasadizo ugari daude.

MIRAMAR JAUREGIRA BISITAK

	EUSKERA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGLESA	GUZTIRA
UZTAILA	183	698	53	111	1.045
ABUZTUA	187	293	81	106	667
GUZTIRA	370	991	134	217	1.712

Txartelak Donostia Turismoa & CBren hiru informazio guneetan (Boulevard, autobus-geltokia eta Cervantes plaza) eta www.sansebastianturismo.com webgunean jarri dira salgai (Shop / Jarduera Onenak). Ireki berri den on-line salmenta-kanalari esker produktuen eskuragarritasuna eta bisitariaren esperientzia hobetu da. Gaur egun, bisita gidatuen % 39,3 on line saldu dira.

SALMENTA-KANALA

	BULEGOAK	SALMENTA ZUZENA	ON-LINE
UZTAILA	340	187	518
ABUZTUA	134	379	154
GUZTIRA	474	566	672



BISITARIEN JATORRIA

Donostiarrak eta lurraldeko gainontzeko bisitariak izan dira bisita honetan interes handiena erakutsi dutenak, **1.194 gipuzkoarrek hartu dute parte Miramar Jauregiko bisita gidatuetan**. Bizkaiatik (54 pertsona), Nafarroatik (43 pertsona) eta Arabatik (11 pertsona) ere hurbildu dira jauregia ezagutzera.

Estatuko gainontzeko probintzietatik ere 315 bisitari etorri dira: Madrid (119 pertsona), Zaragoza (27 pertsona) eta Bartzelona (17 pertsona).

Nazioarte mailan honako bisitari hauek izan dira bisita gidatu honekiko interes handiena erakutsi dutenak:

FRANTZIA	48
AEB	22
SUITZA	16
ARGENTINA	15
MEXIKO	13
BRITANIA HANDIA	11
ITALIA	10
IRLANDA	9
ALEMANIA	9
HERBEHEREAK	6